

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Gipuzkoako Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de
Gipuzkoa**

2018





AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek legea betetzeari buruzko iritzia ...	11
II.2 Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen kontuei buruzko iritzia	12
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK.....	14
III.A Gipuzkoako Foru Aldundia	14
III.A.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	14
III.A.2 Zerga-sarrerak	14
III.A.3 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa	15
III.A.4 Dirulaguntzak.....	16
III.A.5 Sorospen-zerbitzuak eta gizarte-politiketako hitzarmenak	18
III.A.6 Langileria-gastuak	19
III.A.7 Ondarea	19
III.B Erakunde autonomoak	20
III.B.1 Langileria-gastuak	20
III.B.2 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa	20
III.C Foru merkataritzako sozietateak	21
III.D Foru fundazioak.....	21
IV. FINANTZA ANALISIA	22
IV.1 GFAren aurrekontuaren emaitza doitua	22
IV.2 GFAren diruzaintza geldikina eta zorpetzea	24
IV.3 EErakunde autonomoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak	25
IV.4 Ondorioa	25
IV.5 Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzaren iraunkortasuna	25
V. URTEKO KONTUAK	29
V.1 Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuak.....	29
V.2 Foru erakunde autonomoen kontuak.....	32
V.3 Merkataritzako foru sozietateen kontuak.....	36
V.4 Foru fundazioen kontuak.....	38



ERANSKINAK41

A	Foru sektore publikoaren kontu bateratuak	41
B	Gipuzkoako Foru Aldundia	43
B.1	Alderdi orokorrak	43
B.2	Aurrekontua, aurrekontuko aldaketak eta konpromiso-kredituak	44
B.3	Langileria-gastuak.....	46
B.4	Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	48
B.5	Transferentziak eta emandako dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoak	49
B.6	Inbertsio errealak eta ibilgetua	54
B.7	Sarrerak, zordunak eta zerga-hartzekodunak.....	57
B.8	Transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako sarrerak...	60
B.9	Ibilgetu finantzarioa eta aktibo finantzarioak	61
B.10	Zorrak eta finantza gastuak	62
B.11	Zordunak eta hartzekodun ez aurrekontukoak	64
B.12	Aurrekontuaren eta ondare emaitzaren arteko berdinkatzea	65
B.13	Kontratazioaren analisia	66
B.14	Dirulaguntzen analisia.....	71
C	Foru erakunde autonomoak.....	73
C.1	Langileria-gastuak.....	73
C.2	Kontratazioaren analisia	74
D	Merkataritzako foru sozietateak.....	77
D.1	Ibilgetu ukiezin eta materiala eta epe luzeko zuzkidurak	77
D.2	Ibilgetuko inbertsioak eta izakinak	78
D.3	Epe motzeko finantza inbertsioak	79
D.4	Zorpetzea eta finantza gastuak.....	79
D.5	Langileria-gastuak.....	80
D.6	Hornidurak eta ustiapeneko bestelako gastuak.....	81
D.7	Beste batzuk.....	81
D.8	Kontratazioaren analisia	82
E	Foru fundazioak.....	83
E.1	Langileria-gastuak.....	83
E.2	Moneta-laguntzak	83

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK85



ÍNDICE

ABREVIATURAS	99
I. INTRODUCCIÓN.....	101
II. OPINIÓN.....	103
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad de las entidades que integran el Sector Público Foral	103
II.2 Opinión sobre las Cuentas de las entidades que integran el Sector Público Foral	104
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	106
III.A Diputación Foral de Gipuzkoa	106
III.A.1 Presupuesto y contabilidad	106
III.A.2 Ingresos fiscales.....	106
III.A.3 Contratación de bienes y servicios	107
III.A.4 Subvenciones	108
III.A.5 Servicios asistenciales y convenios políticas sociales.....	110
III.A.6 Gastos de personal	111
III.A.7 Patrimonio.....	111
III.B Organismos Autónomos	112
III.B.1 Gastos de personal	112
III.B.2 Contratación de bienes y servicios	112
III.C Sociedades Mercantiles Forales	112
III.D Fundaciones Forales.....	113
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	114
IV.1 Resultado Presupuestario Ajustado de la DFG	114
IV.2 Remanente de Tesorería y Endeudamiento de la DFG	116
IV.3 Organismos Autónomos, Sociedades Mercantiles y Fundaciones Forales.....	116
IV.4 Conclusión	117
IV.5 Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera	117
V. CUENTAS ANUALES.....	120
V.1 Cuentas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.....	120
V.2 Cuentas de los Organismos Autónomos Forales.....	123
V.3 Cuentas de las Sociedades Mercantiles Forales	127
V.4 Cuentas de las Fundaciones Forales	129



ANEXOS 131

A	Cuentas consolidadas del Sector Público Foral de Gipuzkoa.....	131
B	Diputación Foral de Gipuzkoa.....	133
B.1	Aspectos generales.....	133
B.2	Presupuesto, modificaciones presupuestarias y créditos de compromiso.....	134
B.3	Gastos de personal.....	136
B.4	Gastos corrientes en bienes y servicios.....	138
B.5	Transferencias y subvenciones corrientes y de capital concedidas.....	139
B.6	Inversiones reales e inmovilizado.....	144
B.7	Ingresos, deudores y acreedores tributarios.....	147
B.8	Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	150
B.9	Inmovilizado financiero y activos financieros.....	151
B.10	Deuda y gastos financieros.....	152
B.11	Deudores y acreedores no presupuestarios.....	154
B.12	Conciliación resultado presupuestario-patrimonial.....	155
B.13	Análisis de contratación.....	156
B.14	Análisis de subvenciones.....	160
C	Organismos Autónomos Forales.....	162
C.1	Gastos de personal.....	162
C.2	Análisis de contratación.....	163
D	Sociedades Mercantiles Forales.....	166
D.1	Inmovilizado intangible y material y provisiones a largo plazo.....	166
D.2	Inversiones inmobiliarias y existencias.....	167
D.3	Inversiones financieras a corto plazo.....	168
D.4	Endeudamiento y gastos financieros.....	168
D.5	Gastos de personal.....	169
D.6	Aprovisionamientos y otros gastos de explotación.....	170
D.7	Otros.....	170
D.8	Análisis de contratación.....	171
E	Fundaciones Forales.....	172
E.1	Gastos de personal.....	172
E.2	Ayudas monetarias.....	172

ALEGACIONES PRESENTADAS POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA.... 173

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 4a

Vitoria-Gasteiz, a 4 de junio de 2020



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

BEZa	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena.
ENP	Enpresa.
FA	Foru Araua.
FPEK	Finantza Publikoen Euskal Kontseilua.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GHK	Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
IAGFE	Irabazi asmorik gabeko familiak eta erakundeak.
IZFE	Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea SA.
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
TE	Toki-erakundea.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2019rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2018ko ekitaldiaren Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak informazioa eman behar du foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta ondarearen egoerari buruz, ekitaldiaren ekonomia eta ondarearen emaitzei buruz eta aurrekontuen likidazioari buruz; besteak beste, honako agiri hauek osatzen dute:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko kontuek eta kudeaketa txostenak.
- Foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen urteko kontuek.
- Foru sektore publikoaren bateratutako kontuak

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoa honako hauek osatzen dute:

- Foru Administrazioa, Foru Aldundian gorpuzten dena.
- Erakundeen administrazioa, ondoko foru erakunde autonomo hauek osatzen dutena:
 - Uliazpi Fundazioa, zeinaren xedea eta jarduera adimen ezgaitasun larria duten pertsonak eta haien senitartekoak artatzea den.
 - Kabia, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta egikaritzea helburu duena.
- Merkataritzako foru sozietateak (guztiak ere GFAk % 100ean partaidetutakoak):
 - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA (IZFE SA), foru eta toki administrazioari informatika zerbitzuak ematen dizkiona.
 - Bidegi-Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA; sozietatearen xedea A-8 eta AP-1 autobideak, horien instalazio eta zerbitzuak mantendu, zaindu, eraiki eta ustiatzea da.
 - Etorlur, Gipuzkoako Lurra SA, zeinaren xedea lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu eta jarduera ekonomiko, etxebizitza eta era guztietako ekipamendu publikoak besarkatuko dituen lurzorua saldu eta erostea den. Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan nekazaritza-lanetarako erabilgarria den lurzorua erosi eta kudeatzea ere helburu du.
- Foru fundazioak:
 - Kirolgi Fundazioaren xedea da Gipuzkoako kirola sustatu eta garatzea, lehentasunezko arreta eskainiaz errendimenduko kirolari, bereziki babesletza publiko eta pribatuak erakarriz.
 - Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoa bitarteko iraunkorrak instalatzea suteen prebentzioari eta itzaltzeari eta beste gai osagarriei buruzko trebakuntzako eta prestakuntzarako; eta, oro har, salbamenduko gaietan adierarik zabalenean, zeinetan erreferente izan nahi duen.
 - Adinberri Fundazioa, zeinaren helburua baita Gipuzkoako berrikuntza-potentziala ahalik eta gehien handitzea, zahartze osasungarriaren, gizarte- eta osasun-sistemaren bikaintasunaren eta arlo horretako industriaren lehiakortasunaren zerbitzura.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Gipuzkoako Klima Aldaketarako Fundazioa, zeinaren funtzioak baitira GFari laguntzea klima-aldaketak Gipuzkoan duen eragina aztertu, behatu eta kontrolatzen eta Gipuzkoako klima-aldaketaren aurkako borroka-estrategiaren aurrerapausoen ebaluazio- eta jarraipen-prozesua bermatzea.
- ZIUR Fundazioa, zeinaren xedea den eskualdearen gaitasuna indartzea fabrikazio aurreratuaren arloan, bereziki zibersegurtasun industrialean, sektore teknologikoaren garapena sustatuz eta Gipuzkoako enpresen nazioarteko lehiakortasuna eta posizionamendua indartuz, bereziki sektore industrialekoak.

Hiru fundazio horiek 2018 ekitaldian eratu zituzten.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak, dirulaguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: GFaren kontuak, erakunde autonomoen kontuak eta merkataritzako sozietateen kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Erakunde autonomoek, merkataritzako sozietateek eta foru fundazioek dagozkien kanpo auditoretzako txostenak eginak dituzte.



II. IRITZIA

II.1 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEK LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. GFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2018an 43 langileri guztira 1,4 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikuluaen arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZtik salbuetsita, urtarrilaren 17ko 3/2014 FAREN 9. artikuluaen arabera (ikus B.3 eranskina).
2. GFAk bosti kontratu iraungi ostean gizarte zerbitzuak ematen jarraitu du, 5,1 milioi euroren gastua dutenak, kontratazio-araudiaren arabera eskagarri zitezkeen esleipen prozedura irekiak saihestuta; prozedura horiek gerora abiarazi dira (ikus B.13.2 eranskina).
3. GFAk hamaika hornitzaileekin kontratatu du arreta goiztiarraren tratamendu-zerbitzua; 2018ko ekitaldian gastua 725.540 eurorena izan zen, espedientearen izapiderik gabe. Beraz, prozedura irekia erabili behar izan zen.
4. GFAk zuzenean kontratatzen ditu informazio- eta publizitate-zerbitzuak hedabideetan, bost hornitzaileekin, 298.021 euroren zenbatekoan, zerbitzu horien prestaziorako indarreko kontratua alde batera utzita, zeina prozedura ireki bidez esleitu zen 2018 ekitaldian.
5. GFAk, kontratu txikien bidez, gastuak exekutatu ditu, 1,5 milioi euroren zenbatekoarekin, bi obrei eta bi zerbitzuei dagozkienak; horiek zegozkien prozedura ireki sinplifikatuen bidez izapidetu beharko zituzten (ikus B.13.2 eranskina).

Epaitegi honen ustetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek, 1etik 5era bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEN KONTUEI BURUZKO IRITZIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. Guztizko Diruzaintza Geldikina eta Ondare Garbia 2018ko abenduaren 31n 13,6 milioi euroan gehitu behar dira eta 42,9 milioi euroan murriztu, hurrenez hurren, ondoko doiketen ondorioz:

ERANSKINA	Euroak milakotan	
	D. Geldikina 2018.12. 31	Ondare garbia 2018.12. 31
B.5 Etxez etxeko zerbitzuaren 2018ko 4. hiruileko gastuak	(2.048)	(2.048)
B.7.2 Zor fiskalak gauzatan biltzeagatik erakundeen konpromisoak	-	(40.928)
B.7.2 Zerga-zordun eta -hartzek., hornidurak kenduta, aurrekontuan islarik gabe	15.662	-
GUZTIRA	13.614	(42.976)

2. Ibilgetu material eta ukiezina, 2018ko abenduaren 31n 2.949,7 milioi euroren amortizazio kostu garbia izan duena, ez dago kontu-sail jakinetarako inbentario batean euskarritua, zeinaren kostu garbia guztira 1.916,4 milioi euroena baita; honenbestez, ezin jakin daiteke ondasun eta eskubide horien egiazko egoera (ikus B.6.2 eranskina).
3. GFAk, 2018ko abenduaren 31n, zaharren egoitzen zortzi eraikinen doako lagapena jaso zuen GLHko udal batzuen eskutik; horiek GFAREN ibilgetuaren zati bat osatzen dute, eta haren kudeaketa Kabia Organismo Autonomoaren esku dago. Egoera-balantzeak ez du jasotzen eraikin horien balorazioa, eta ez da formalizatu titulartasunaren transmisioa, zeina gehienez lagapena sinatu eta bederatzi hileko epean egin behar baitzen. Halaber, egoera-balantzean erregistratzeke daude Lazkaoko, Zumaiako eta Zumarragako egoitzen obra publikoen administrazio esleipenak.

BIDEGI SA

4. Bidegi SAk 10,9 milioi euroren diru-sarrera garbiak izan zituen 2018ko ekitaldian, Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-15 eta N-I trafikoko handiko errepideetan, zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duen abenduaren 15eko 7/2016 Foru Araua aplikatuz salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunei begira. Arau horren aurka administrazio-uziko errekurtoa aurkeztu zen EAEJANen aurrean, zeinak, 2018ko apirilaren 9ko epaiaren bidez, zuzenbidearen aurkakoa izendatu eta baliogabetu egin baitzuen araua; GFAk kasazio-errekurtoa aurkeztu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean, eta hark izapiderako onartu zuen; txosten hau idatzi denean, ebazteke dago oraindik. Beraz, Sozietatearen Urteko Kontuetan jakinarazi ez den ziurgabetasun bat dago (ikusi D.7 eranskina).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA SA

5. Azkoitiko Intsausti eremuan egin asmo den sustapenaren zehaztugabetasun egoerak eta eremu horretako lursail eta eraikinen gaineko aditu independenteen balorazio-erak sozietatearen aktibo arruntean balorazioaren zuzentasunaren gaineko ondorioz ematea eragozten du, zeina 3,8 milioi eurorena baita (ikus D.2 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.A GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

III.A.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- GFak Gipuzkoako Hondakin Kontsortzioaren urteko kontuen auditoretza egin du, zeina nahitaezkoa den bertara adskribatutako partzuergoentzat.
- GFaren konpromiso-kredituek honakoak gehitzen dituzte: itxieran konprometitu ez diren jarduketak, esleipen globalak, segidako tartearen gastuak eta etorkizuneko dirulaguntza deialdiak, eta honenbestez, ez lirateke konpromisozko kreditu modura gehitu behar. Horregatik guztiagatik, uste dugu konpromiso-kredituen aurrekontua berrikusi beharko litzatekeela, ekitaldian aurreikusi diren urte anitzeko jarduketak modu xehatuan gehitzeko (ikusi B.2.2).
- GFak Inbertsio errealen kapituluan errepideak mantentzeko gastuak kontabilizatu ditu, 52,4 milioi euroren zenbatekoan, eta beste erakunde batzuentzat egindako lanak, 5,6 milioi eurorenak; ondarean kudeaketa arrunteko gastuen atalean erregistratzen dira, izan ere, ez kapitalizagarritzat jotzen diren eragiketak jasotzeko (ikusi B.6.1).
- GFak 21,9 milioi euro ordaindu ditu (ekitaldiko ordainketa guztien % 6,1), merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean (15/2010 Legeak eta ekintzaileei laguntzeko, hazkundera estimulatuzeko eta enplegu-sorrerarako neurriei buruzko 4/2013 Errege Dekretuak aldatutakoa) aurreikusten den hogoita hamar eguneko epea gaindituz.

III.A.2 ZERGA-SARRERAK

Atal honetan honako alderdiak nabarmentzen ditugu:

- GFak hiru zordunei zegozkien zerga-zorrak eman ditu bajaran 2018ko ekitaldian, 337.950 euroren zenbatekoarekin, erantzukizun subsidiarioaren eratortze-prozedura bat abiarazteko diru-bilketa jarduketak egin gabe, araudian xedatzen den moduan.
- Zerga-zorrak ordaintzeko bi zatikatze-espeditetan, 1,4 milioi euroren zenbatekoarekin, zatikatzea esleitzeko gehieneko epea gainditzen da, eta ez dira nahitaezko bermeak osatu txosten hau idatzi denean.
- GFak ez du banaketara lotutako diru-bilketa moduan aitortu atzerapen-interesren % 10,6, hau da, 590.159 euro guztira. Ehuneko hori, azken ekitaldietan errepikatzen dena, antzina egin ohi zen estimazioa da, banaketara meneratzen ez ziren tributuek, orduan, eragiten zituzten kobrantzen kontzeptuan. Uste dugu tributuek horiek modu zehatzean identifikatu behar direla, eta ez modu estimatuan.



III.A.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kontratazio espedienteak (ikus B.13.1)

2018ko ekitaldian esleitutako eta lehenagoko ekitaldietan esleitu eta ekitaldi horretan egikaritutako kontratazio espedienteak aztertzetik honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- GFako sailek formula ezberdinak erabili ohi dituzte xede bereko espedienteetan “prezio” irizpidea balioztatzeko, erabilera hori arrazoitu gabe. Formularen erabilera berdindu behar litzatekeela uste dugu, aukera arrazoituz, eskaintzak balioztatzeko irizpideen araudiaren aurreikuspenei jarraikiz.
- Obrak kontratatzeke espediente batean (8 espedienteak), 1,2 milioi euroren truke esleitu zena, ez ziren egin kontratazio-espedienteetan eskatzen diren izapide hauek: justifikazio-memoria, proiektuaren gainbegiratze-txostena, aurretiazko zuinketa-akta eta zuinketaren egiaztapena. Bestalde, Segurtasun eta Osasun Plana saileko zuzendari batek onetsi du, eta kontratazio-organoak onetsi beharko luke; gainera, ez da jaso Lan Programaren onespelik. Gauza bera gertatu da 1,3 milioi euroren truke esleitutako obra-espediente batekin (26 espedienteak).

Kontratu txikiak

- Haurtzarorako arreta espezializatuaren arloko hezkuntza-babes indibidualerako zerbitzuak (prozedura ireki bidez esleitutako kontratuen zerbitzu osagarriak), 2018ko ekitaldian 795.376 euroren gastua izan dutenak, kontratu txiki moduan izapidetzen dira; ordea, unitateko prezioen bidez esleitu beharko liriteke, kontratu nagusiaren esleipenarekin batera.
- Kontratu txikien bidez suhiltzaileentzako material-hornikuntzak eskuratu dira, 9 hirugarrengorekin, 225.339 euroren zenbatekoaren truke, baita suhiltzaileen ibilgailuen mantentze-zerbitzua ere, 5 hirugarrengorekin, 142.217 euroren truke; alabaina, kontratu mota bakoitza lotetan izapidetu zitekeen, prozedura ireki sinplifikatua baliatuta.
- Kontratu txikien xedearen analisisan, 29 jarduketa hauteman dira 1,2 milioi euroren zenbatekoarekin, eta, xedearen homogeneousuna eta gastuaren zenbatekoa kontuan hartuta, beharrezko prozedura ireki sinplifikatu eta laburtuak egin beharko liriteke, publizitatearekin kontratatzailearen profilean (ikus B.13.2).

Hitzarmenak

- Gizarte-politika sailak emakumeak eta haurrak artatzeko psikologoen kontratazioa Gipuzkoako Psikologoen Elkargo Ofizialarekin izenpetutako lankidetzak-hitzarmen baten babesean egiten du, arreta psikologikoa emateko hiru programatan esku hartuko duten profesionalak homologatzeko; 2018ko ekitaldian 1 milioi euroren gastua eragin du. GFak Elkargoari eskatu behar lioke proposatutako profesionalak hautatzeko gauzatu dituen ekintzak egiaztatzeke, hitzarmenean aurreikusitakoa betez.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Hazi Fundazioarekin sinatutako hitzarmenari dagokionez, 2018ko abenduaren 18ra arte ez zen onetsi ekitaldiari dagokion kudeaketa-agindu espezifikoak, hitzarmenean aurreikusten dena eta burutu beharreko ekintzak eta haiei esleitutako zenbatekoak zehazten dituenak. Beraz, ekitaldian zehar prestazioak exekutatu dira horiek babesteko tresna juridiko egokirik gabe; ondorioz, agindua sinatzea gomendatzen da gastua sortu aurretik, zeina 2018ko ekitaldian 812.000 eurorena izan baitzen.

III.A.4 DIRULAGUNTZAK

Alderdi orokorrak

- GLHren dirulaguntzei buruzko Foru Arauak agintzen du Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera bidaltzeko obligazioa dagoela dirulaguntzen deialdi eta emakida-ebazpenei buruzko informazioa. 2015eko uztailaren 9an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Kooperaziorako Bitariko Batzordearen akordioa Estatuko Administrazioaren eta EAEko Administrazioaren artean eta bertan erabaki zen Kontzertuaren Batzorde Mistoak beharrezko diren erabakiak bideratuko dituela informazio-bidalketa hau gauzatzeko. Txosten hau idatzi dugun datan ez dira erabaki horiek hartu eta GFAk ez du Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera arautegian aurreikusitako informazioa bidaltzen.

Bestalde, eta Europako araudiak agindutakoa betetzeko Dirulaguntzen Datu-base Nazional horrek eskatzen duen informazioa dela-eta, Estatu Kide bakoitzak estatuaren laguntza gaietan argitaratu beharreko edukiei dagokienez, uste dugu dirulaguntzen espedienteetan justifikatu beharko litzatekeela, hala dagokionean, Europako Batzordearen 1407/2013 eta 651/2014 araudien aplikazioa, barne merkatuarekiko laguntzen bateragarritasuna dela-eta.

- Zenbait espedientetan ikusi dugu onuradunak ez duela eskagarria den kasuetan diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana egiaztatu (dirulaguntza izendunen 2, 6 eta 8 espedienteak; dirulaguntza zuzenen 6. espediente eta aurreko urteetako 1. espediente) (ikus B.14).
- Espediente batzuetan ez dira egiaztatu diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten bestelako diru-sarrera eta dirulaguntzak (izendunen 1, 2, 3 eta 4 espedienteak, zuzenen 4 eta 6 espedienteak eta aurreko urteetako 1 espediente) (ikus B.14).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Dirulaguntza izendunak (ikusi B.14)

- Lau unibertsitateri 1,2 milioi eurogatik esleitutako dirulaguntzetan, ez dira egin sinatutako hitzarmenetan aurreikusitako Jarraipen Batzordeen lauhilekoko aktak (1, 2, 3 eta 4 espedienteak). Horrez gain, dirulaguntza horietako hirutan, 900.000 euroren zenbatekoa dutenak (2, 3 eta 4 espedienteak), aurkeztutako aurrekontua ez dago kuantifikatuta diruz lagundutako jarduera bakoitzarentzat.
- GFAk kirol-sozietate anonimo bati esleitutako dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean, klubak 2017-2018 denboraldiko ACB ligan izan duen parte-hartzearen finantzaketari laguntzeko eta saskibaloia sustatzeko, 400.000 euroren zenbatekoaren truke (8 espedienteak), zehazten da dirulaguntzaren zenbatekoak ez duela inolaz ere gauditutako diruz lagundutako jardueraren kostua, bai bakarrik edo bai bestelako dirulaguntza, diru-sarrerara edo baliabideekin batera. Denboraldi horretarako ikuskatutako kontuek 306.613 euroren mozkina islatzen dute; beraz, hitzarmenaren xedea betetzearekin ordaindutako zenbatekoa berrikusi beharko litzateke, eta, hala badagokio, diruz lagundutako gehiegizko zenbatekoaren itzulera proportzionala eskatu.

Dirulaguntza zuzenak (ikusi B.14)

- Foru Gobernuaren Batzordeak bederatzi dirulaguntza esleitu zituen zuzenean (1-8 eta 10 espedienteak), 4,5 milioi euroren zenbatekoaren truke, eta, azken ekitaldietako espezifikotasuna eta errepikapena kontuan hartuta, uste dugu dirulaguntza izendunaren figura erabili beharko litzatekeela, Batzar Nagusiek onetsitako ekitaldi-aurrekontuetan gehituz, beraz; halaber, uste dugu espedienteen deialdi publiko bat antolatzeke zailtasuna adierazi beharko litzatekeela.
- 270.000 euroren zenbatekoaren truke esleitutako dirulaguntza zuzen batean (2 espedienteak) ez dira xehatu diruz lagundutako jarduerak, eta ez da esleipena argitaratu.
- 300.000 euroren zenbatekoaren truke esleitutako dirulaguntza zuzen batean (6 espedienteak) ez da justifikatu proiektuaren kostu totala.
- 2018ko azaroaren 13an, Foru Gobernuaren Batzordeak Irungo Udalari 6 milioi euroren dirulaguntza (6 espedienteak) esleitzea adostu zuen Hegoaldeko Ingurabidea delakoaren lehen faseko obrentzat; obren exekuzioa 2019-2021 aldirako aurreikusi zen. Dirulaguntza horren aurrekontu-esleipena 2018ko ekitaldian jasotzen da, eta, kontuan hartuta azpiegitura horiek ez direla esleitu ere egin 2018ko ekitaldian, 2019ko ekitaldiko aurrekontuan gehitu beharko litzateke, Batzar Nagusiek onetsitako dirulaguntza izendun moduan, dagokion esleipenarekin 2020ko eta 2021eko konpromiso-kredituetan.

Deialdia izan duten dirulaguntzak (ikusi B.14)

- Bi deialditan (2 eta 4 espedienteak), 4 milioi euroren dirulaguntzak esleitu dituztenak, 2018ko ekitaldiaren urterokoaren % 100 aurreratzen da onuradun guztientzat, oro har, oinarriek aurreikusten badute ere ezohiko moduan egin behar dela.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.A.5 SOROSPEN-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-POLITIKETAKO HITZARMENAK

GFAk gizarte zerbitzuak emateko izenpetutako kontratu, hitzarmen eta kontratu-programen 2018ko ekitaldiko tarifak orokortasunez aplikatutako ehunekoetan igo ditu (2017ko igoerak 4,9 milioi euroren gastua eragin du), nagusiki zerbitzu ematen duten langileen soldata-igoerarekin loturikoak (ikus B.5.2). Tarifa-igoera hauekin lotuta alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Aztertu ditugun gizarte-zerbitzuen kontratuetan (ikus B.13.1) -2018a baino lehenagoko ekitaldietan esleitutakoak-, ez dira izenpetutako klausuletako pleguen aurreikuspenak aplikatu, dela prezioak berrikusteko klausularik jasotzen ez zutelako (2014tik aurrera kontratatutakoak), dela klausulek KPIren % 85eko berrikuste-klausulak jasotzen zituztelako (2014 baino lehenago kontratatutakoak), onartutako igoerak baino txikiagoa dena.
- Kontratu-programak 2017ko ekitaldian aurreko ekitaldietan izenpetutako hitzarmen gehienak ordezkatuz izenpetu ziren eta hitzarmenetan gertatzen zen moduan, hauetan ere ez da zehaztu zein prezio-berrikuspen aplikatuko zaien. Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuak, 5. artikuluan agintzen du eskulanari dagozkion kostuak balio berrikusira aldatu ahal izango direla, betiere, sektore publikoko zerbitzura diharduen langileriaren ordainsariek izandako igoera baino handiagoak izan gabe, Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeei jarraikiz, 2018rako % 2,05ekoa izan zena aipatutako Legearen 18 Bi artikulua araberak. Berebat, gainerako kostuek ez dezakete erreferentzia modura KPI hartu, martxoaren 30eko 2/2015 Legeari jarraikiz, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzkoa. Ondorioz, ez dira aintzat hartzen legezko aurreikuspenak prezioak berrikusteko.

Honako hauek dira gizarte-zerbitzuek izandako gastuan nabarmentzen diren beste alderdi batzuk:

- 2018an tokiko erakundeekin sinatutako etxeko laguntza-zerbitzuaren hitzarmenak, 2018ko ekitaldian 9,6 milioi euroren gastua izan dutenak (ikusi B.5), zehazten dute indarraldia 2019ko ekainaren 30era arte dela, hori amaitzean luzatutzat joko direla urte natural bateko epeetan, betiere beharrezko aurrekontu-esleipena baldin badago luzatutako ekitaldirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 artikuluan xedatzen denaren aurka, zeinak zehazten duen “hitzarmenek iraupen zehatza izan beharko dutela, eta hori ezingo dela lau urtetik gorakoa izan, betiere araudian ez bada aurreikusten epe luzeago bat”; kasu honetan ez da inguruabar hori bete.
- GFAk ez du kontrolik egin hirugarren adineko zentroetako erresidentzia-zerbitzuaren erakunde esleipendunek kontratatutako langileei dagokienez; beraz, ez ditu kontuan hartu 2018an zentro horietan deitutako 16 greba-egunen ondorioak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Azkenik, gizarte zerbitzuak ematean hitzarmenaren eta kontratu-programaren figura erabiltzeari dagokionez, azpimarratu behar dugu abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, dioela kontzertuaren araubidea dela gizarte zerbitzuak emateko lehentasunezko lankidetzaren formula euskal administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean eta ez dela araudi bidez arautu, eta hitzarmenaren eta kontratu-programaren moldea gordetzen dela irabazi asmorik ez duten gizarte-ekimeneko entitateentzat, betiere jardueraren edo zerbitzuaren berezitasunak, izaera presako edo berritzaile eta espermentuzkoak egokiago egiten badu hitzarmen eta kontratu-programa horiei kontzertuko araubidearen baldintzak ez aplikatzea. GFAk erregistratu duen hitzarmen eta kontratu-programetatik eratorritako gastutik 36,4 milioi euro (ikus B.5.2) enpresa pribatuekin gauzatzen dira.

III.A.6 LANGILERIA-GASTUAK

Atal honetan ondotik adierazitakoak azpimarratu nahi ditugu:

- GFAk 2018ko ekitaldirako produktibitate-osagarri ez finkagarria onartu du lan-absentismoaren indizeari loturik; osagarri hau 540 eta 600 euro bitarteko ordainketa bakarrean ordaintzen da eta 2018ko ekitaldian 1,1 milioi euroren gastua eragin du. Produktibitate-osagarria langile bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.
- Aurrekontuaren eranskinean barne hartutako plantilla 2.097 plazakoa da (ikus B.3). Aurrekontuan jasotako plaza modura barne hartu dira lanpostuen zerrendaz besteko diren aldi bateko izaera duten kontratuak, besteak beste, errenta kanpainarako teknikarien programako bitarteko 99 kontratu, suhiltzaileen 61 kontratu eta Egogain egoitzarako 35 zaintzaile kontratu. Gure iritzira aurrekontu plantillak soil-soilik plaza bati loturik dauden kontratazioak jaso behar ditu; alabaina, programako bitarteko aldi bateko kontratazioak, ordezkapenak, e.a. gastuaren aurrekontuko diru-izendapenaren zenbaketan soilik hartuko dira kontuan.

III.A.7 ONDAREA

Ondasun zerrenda orokorra ez du Diputatuen Kontseiluak onetsi, GLHren Ondareari buruzko 8/1996 F Aren 29. artikulua aurreikusten duen moduan.

III.B ERAKUNDE AUTONOMOAK

III.B.1 LANGILERIA-GASTUAK

Uliazpi

- Uliazpi Fundazioak bi ordainketa egin ditu 2018 ekitaldian, GFaren produktibitate-osagarriaren asimilazio-kontzeptuan, 200 eurorena 2017ko ekitaldian eta 600 eurorena 2018ko ekitaldian: guztira, 50.707 eta 162.088 euroren gastua ekarri dute, hurrenez hurren. Ordainketa horiek izaera ez kontsolidagarria dute, eta kontratatutako urteko lanaldiarekiko proportzioan ordaintzen dira. Produktibitate-osagarria langile bakoitzak bere esku dauden egitekoetan izan duen errendimendua, interesa edo inizatiba berezia ordaintzeko erabili beharko litzateke.

Kabia

- Oso-osorik enpresa batek kudeatzen dituen zahar egoitzetako egoitza zerbitzuaren erakunde esleipendunek kontratatutako langileen gaineko kontrolik ez da egin; beraz, ez dira kontuan hartu 2018an zentro horietan deitutako 16 greba egunen ondorioak.
- Lanpostu-zerrendak ez ditu barne hartzen Andoaingo, Bergarako eta Ordiziako egoitzetako lanpostuak; bertako langileak subrogatuak izan dira 2018an, eta 52 dira guztira.

III.B.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

- Kontratazio-espediterik gabeko gastuaren analisisian 5 eta 3 jarduketa hauteman dira Uliazpin eta Kabian, 197.628 eta 142.173 euroren zenbatekoekin hurrenez hurren, eta, xedearen homogeneotasuna eta gastuaren zenbatekoa kontuan hartuta, beharrezko prozedura ireki sinplifikatu eta laburtuak egin beharko lirateke, kontratatzailearen profileen publikotasuna emanda (ikusi C.2).



III.C MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK

Bidegi SA

- Bidegi SAk bi ordainketa ez kontsolidagarri egin ditu 2018ko ekitaldian, GFaren produktibitate-osagarriaren asimilazio-kontzeptuan, 200 eurorena 2017ko ekitaldian eta 600 eurorena 2018ko ekitaldian: guztira, 4.000 eta 12.000 euroren gastua ekarri dute, hurrenez hurren. Produktibitate-osagarria langile bakoitzak bere esku dauden egitekoetan izan duen errendimendua, interesa edo inizatiba berezia ordaintzeko erabili beharko litzateke.
- Bidegi SAREN banku-kontuetako funtsak erabiltzeko baimena pertsona bakar batek du eta gomendagarria da sinadura mankomunatuak izatea.

III.D FORU FUNDAZIOAK

Kirolgi Fundazioa

Fundazioaren Patronatuko Batzordeak 2017-2018ko aldiko aurrekontua onartu du, kirol elkarteei emango zaizkien dirulaguntzen xehakapen banakatua eginez eta dirulaguntza izendun izaera emanez. Alabaina, xehakapen nominatibo hau ez zaio GLHren 2018ko ekitaldiko aurrekontu-proiektuari txertatzen, Batzar Nagusien aurrean aurrekontua onartzeko izapidetu dena. Dirulaguntza izendun izaera izan dezan, xehakapena aurrekontua izapidetzean barne hartu behar da. Fundazioaren kontuetan dirulaguntza hauen kontzeptuan erregistraturiko gastua 2,4 milioi eurorena da (ikus E.2). Bestetik, emandako dirulaguntzak justifikatzean ez zaie onuradunei eskatzen dagozkion gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana justifikatzeko, dirulaguntzei buruzko araudiak hala eskatzen duen kasuetan.



IV. FINANTZA ANALISIA

IV.1 GFA-REN AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA

Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontuetatik eratorri diren finantza magnitude nagusiak

	Euroak milakotan		
	2017	2018	Bariazioa 2018/2017
Sarrera arruntak	4.735.491	4.909.140	% 3,7
Itunpeko zergak	4.682.583	4.837.365	
Itundu gabeko zergak.....	4.862	21.327	
Transferentzia arruntak.....	47.758	50.138	
Ondare sarrerak.....	288	310	
Erakundearteko konpromisoak	(3.965.264)	(4.062.950)	% 2,5
Estatuari kupoa	(335.747)	(315.634)	
Eusko Jaurlaritzari ekarpena.....	(3.161.204)	3.232.742)	
Udalei ekarpena	(468.313)	(514.574)	
Sarrera arrunt garbiak	770.227	846.190	% 9,9
Gastu arruntak	(606.963)	(625.349)	% 3,0
Langileria-gastuak	(108.537)	(111.206)	
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak	(122.905)	(127.583)	
Gastu finantzarioak	(3.463)	(2.937)	
Transferentzia arruntak.....	(372.058)	(383.623)	
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)	163.264	220.841	% 35,3
KAPITALEKO ERAGIKETAK (2)	(125.247)	(131.186)	
Inbertsio errealeen besterentzea	282	51	
Kapital transferentzietik eragindako sarrerak	2.635	5.611	
Inbertsio errealetan gastuak.....	(87.614)	(91.855)	
Kapitaleko transferentzietik eragindako gastuak....	(40.550)	(44.993)	
FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)	(19.842)	(24.650)	
Finantza aktiboen bariazio garbia	(10.627)	(335)	
Finantza pasiboen bariazio garbia	(9.215)	(24.315)	
EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3)	18.175	65.005	
EKITALDI ITXIEN EMAITZA (4)	(18)	(129)	
EMAITZARI DOIKETAK (5)	28.603	4.606	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA (1+2+3+4+5)	46.760	69.482	



ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

Aurrekontuko likidazioetatik eratorritako emaitza arrunta 2018ko ekitaldian aurrekoarekiko % 35,3 gehitu da eta 57,6 milioi euroren igoera ekarri du. Igoera hau sarrera arruntek erakunde konpromisoak kenduta guztira izan duten 76 milioi garbiko igoeraren ondorio da, % 9,9ko igoera egiten duena, eta gastu arruntek izan duten 18,4 milioi euroren igoeraren ondorio, zeinak gastu arrunta % 3 gehitzea eragin baitu.

2018ko ekitaldiko zerga itunduen eta erakunde konpromisoen kontzeptuek eragindako diru-bilketak aurreko ekitaldiaren aldean % 3,6 eta % 2,5 gehitu dira, hurrenez hurren, eta erakunde konpromisoek 2017 eta 2018ko ekitaldietako diru-bilketaren % 84,9 eta % 84 egin dute, hurrenez hurren. Ehuneko hauetan eragina dute Kupoaren likidazio atzeratuek eta EAEk foru aldundiei 2017ko ekitaldian egindako berdinkatzeak.

KAPITAL-ERAGIKETAK

Egikaritutako inbertsioen kontzeptuko kapitaleko eragiketen emaitza negatiboa, sarreretatik garbi, 5,9 milioi euro gehitu da.

FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA

Finantzaketa-eragiketen ondoriozko gastuek sarrerak kenduta 4,8 milioi euro egin zuten gora 2018ko ekitaldian, izan ere aktibo finantzarioen kontzeptuko gastua 10,3 milioi txikiagoa izan zen eta maileguak amortizatzeagatik 15,1 milioi euro handiagoa.

AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA

2018ko ekitaldian 69,5 milioi euroan doitutako aurrekontu emaitza 22,7 milioi euroan gehitu da aurreko ekitaldiaren aldean, batik bat, jada honako arrazoi hauen ondorioz:

- Eragiketa arrunten emaitza 57,6 milioi euroan gehitu izana.
- Ekitaldiko emaitza txikiagoa, inbertsioek 5,9 milioi euroren egikaritzea handiagoa izan dutelako.
- Ekitaldiko emaitza txikiagoa, 2018ko ekitaldian finantzaketa-eragiketen ondorioz gastua 8,4 milioi euro handiagoa izan delako.
- Atxiki gabeko diruzaintza-geldikin bidez finantzaturiko gastatutako kredituak gehiago doitu izanaren ondorioz emaitza 23,2 milioi euroan murriztu da.

IV.2 GFA-REN DIRUZAINZTA GELDIKINA ETA ZORPETZEA

Hona hemen Diruzaintza Geldikinak eta baliatu gabeko maileguez izan duten bilakaera:

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan	
	2017	2018
Diruzaintza Geldikina	(24.969)	(68.293)
Maileguetatik erabili gabeko saldoa kreditu kontu moduan.....	153.750	261.950
Finkatutako Diruzaintza Geldikin Erabilgarria	128.781	193.657

Diruzaintza Geldikina negatiboa da 68,3 milioi euroan, aintzat hartu gabe erabili gabeko maileguen kontzeptuko finantzaketa, berehalako erabilgarritasunekoa, kreditu kontuen bitartez, 261,9 milioi euroren zenbatekora arte.

HKEEK proposatutako doiketak aintzat hartuta, 2018ko ekitaldi itxieran Diruzaintza Geldikina eta Finkatutako Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 13,6 milioi euroan gehitu beharko lirarteke.

ZORPETZEA	Euroak milakotan	
	2017	2018
Erabilitako maileguak	415.710	291.995

Zorpetzea (erabilitakoa zein erabili gabea) 15,5 milioi euroan murriztu da.

2018ko urterako GFako aurrekontu orokorrak onartzen dituen 3/2017 FAk, abenduaren 26koak, GFari dagokionez 2018ko abenduaren 31rako epe luzeko zorpetze muga 561,9 milioi euroan ezarri du. Berebat, maileguak amortizatzeko zuzkiduraren aurrekontuko diru-izendapena 26,4 milioi euroana izango dela aurreikusten du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.3 ERAKUNDE AUTONOMOAK, MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK ETA FORU FUNDAZIOAK

Uliazpi Fundazioa eta Kabia erakunde autonomoak, IZFE SA eta Etorlur Gipuzkoako Lurra SA merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak ia osorik GFak eskualdatzen dizkien funtsen bidez finantzatzen dira eta honenbestez, GFaren kontuen finantza-analisiak jada besarkatzen ditu haien eragiketarako ere.

Bidegi SA sozietate publikoak ez du GFatik finantziatorik jaso 2018ko ekitaldian.. Egiten dituen inbertsioak sozietateak berak sortzen dituen baliabideen bitartez eta zorpetzearen bitartez finantzatzen dira. Honekin baterako taulak zorpetzeak eta negozio zifraren zenbateko garbiak izan duen bilakaera erakusten du:

BIDEGI SA	Euroak milakotan	
	2017	2018
Ekitaldi itxieran erabilitako zorra.....	769.139	722.237
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	121.755	141.042
<i>Negozio zifraren/erabil. zorraren zenb. garb. % ...</i>	<i>% 15,8</i>	<i>% 19,5</i>

2018ko urterako GLHko aurrekontu orokorrak onartzen dituen 3/2017 FAK, abenduaren 26koak, Bidegi SA foru merkataritza sozietatearentzat 2018ko abenduaren 31rako epe luzeko zorpetze muga 729,2 milioi euroan ezarri du.

IV.4 ONDORIOA

2018ko ekitaldian diru-bilketak gora egin izanak bide eman du inbertsio errealeen egikaritza handitzeko, ekitaldian 65 milioi euroren emaitza sortuz; horrek esan nahi du Diruzaintza Geldikin Erabilgarri Bateratuak gora egin duela eta 15,5 milioi euro murriztu dela erabilitako eta erabili gabeko guztizko zorpetzea.

IV.5 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUNA

Apirilaren 27ko 2/2020 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, oreka edo egiturazko superabit egoera modura eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura ulertzen direnak, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan, hurrenez hurren.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko txostena Ogasun Ministerioari igorri zaio eta administrazio horrek ez du salbuespenik adierazi.



GFA-REN MENDEKO DEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA

Estatuko Administrazio Orokorraren Kontu-hartzaitzak ezarritakoari jarraiki, GFAREN mendeko Administrazio Publikoaren Sektorera osatzen duten erakundeak honako hauek dira:

- Foru administrazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia
- Foru Erakunde Autonomoak: Uliazpi Fundazioa eta Kabia.
- Merkataritzako Foru Sozietateak: IZFE SA eta Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.
- Partaidetutako Sozietateak: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa (GHK) SA, Bic Gipuzkoa Berrilan SA, Berroeta Aldamar SL, Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztuko SA, eta Garaia Berrikuntza Gunea, S. Koop.
- Partzuergoak: Gipuzkoako Osabidezko Hezkuntza eta Lanerako Prestakuntzarako Kontsortzioa (2018an desegin zena), Gipuzkoako Ur Kontsortzioa, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak.
- Fundazioak: Kiroldi Fundazioa, Mintzola Fundazioa, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa eta Ekain Fundazioa.

Honako entitate hauek Estatuko Administrazioaren Artekartza Nagusiak sailkatu zain daude: Adinberri Fundazioa, Naturklima Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioa eta Ziur Fundazioa. Nolanahi den ere, ekonomia eta aurrekontuko inguruabarrak bat datozeneko Administrazio Publikoaren sektore modura jaso diren gainerako fundazioekin, GFAREN sektore horretan barne hartu ditu Aurrekontuaren Egonkortasun, Gastuaren Arau eta Finantzaren Iraunkortasunaren ondorioetarako.

Aurrekontuaren egonkortasunaren helburua

Aurrekontuaren egonkortasun helburua 2017ko uztailaren 7ko Ministroen Kontseiluaren Erabaki bitartez onartu zen. Kontu Orokorrean barne hartutako aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari buruzko informazioak, “2018ko ekitaldiko Finantzaketa gaitasunari edo beharrari” buruzko atalean, guztira 103,7 milioi euroren finantzaketa gaitasuna islatzen du. Estatuko Administrazio Orokorri aurrekontuaren egonkortasunari buruz igorritako informazioa honakoa da:

	Euroak milakotan			
	Sarrera ez finantz.	Gastu ez finantz.	Gaitas./ Doiketak	(Beharra) Finantzaketa
GFA.....	5.013.503	(4.923.848)	169	89.824
Uliazpi Fundazioa.....	18.960	(18.534)	-	426
Kabia.....	20.718	(19.373)	-	1.345
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.....	1.004	(827)	-	177
IZFE SA.....	28.386	(28.347)	-	39
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritz.....	3.397	(2.952)	-	445
Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa.....	36.113	(36.104)	-	9
Osabidezko Hezkuntza eta Lanerako Prestakuntzarako Kontsortzioa....	-	(1)	-	(1)
Gipuzkoako Ur Kontsortzioa.....	8.735	(358)	-	8.377
GHK SA.....	39.222	(36.977)	-	2.245
Mintzola Fundazioa.....	347	(335)	-	12
Kirolgi Fundazioa.....	3.071	(3.071)	-	-
Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa.....	757	(755)	-	2
Bic Gipuzkoa Berrilan SA.....	2.563	(2.304)	-	259
Berroeta Aldamar SL.....	531	(531)	-	-
Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztuko SA.....	-	(25)	-	(25)
Ortizibia SA.....	531	(111)	-	420
Garaia Teknologia Parkea Koop S.....	1.007	(858)	-	149
Ekain Fundazioa.....	420	(419)	-	1
Adinberri Fundazioa.....	69	(69)	-	-
Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioa.....	143	(143)	-	-
Ziur Fundazioa.....	70	(70)	-	-
GUZTIRA	5.179.547	(5.076.012)	169	103.704

Gastuaren araua

Espainiar ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentziarako tasa 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietarako, 2017ko uztailaren 7ko Ministroen Kontseiluaren Erabaki bitartez onartu zen eta 2018ko urterako % 2,4an finkatu zen. Tasa hau aurreko ekitaldiko aurrekontuaren gastu konputagarriekin biderkatzen da, ezargarria den gastu muga eskuratzeko. Gastu konputagarriak SEC10 terminoetan adierazitako enplegu ez finantzario modura definitzen dira, horietatik kenduta zorraren interesak, langabezia prestazioetan gastu ez aukerakoa, Europako Batasunetik edo beste administrazio publiko batzuetatik eratorritako helburudun funtsen bidez finantzatutako



gastuaren zatia eta autonomia erkidegoei eta toki udalbatzei finantzaketa sistemei loturik egindako transferentziak.

2018ko ekitaldian arau hori ezartzeak 732,7 milioi euroren gastu zenbagarria erakusten digu; honenbestez, bete egiten da aurreko paragrafoan aipatutako mugaketa.

Zor publikoaren helburua

Zor publikoaren helburuari dagokionez, foru ogasunek duten berezitasunaren ondorioz beharrezkoa da Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak iritzia ematea, izan ere zor publikoaren helburua Barne Produktu Gordinaren ehuneko baten gainean finkatzen da; ordea, ehuneko hau ez da administrazio ezberdinen artean banatu (EAE eta foru aldundiak) eta honenbestez, ezin adieraz daiteke Gipuzkoako Foru Sektore Publikoak, SEC10 terminoetan, 2018ko urterako finkatutako zor publikoaren helburua bete duen edo ez.

2018ko abenduaren 31n GFAREN meneko zor publikoa 611,5 milioi euro da (GFA: 553,9 milioi euro, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa: 32,2 milioi euro, GHK SA: 15,5 milioi euro, Bic Gipuzkoa Berrilan SA: 0,5 milioi euro, Berroeta Aldamar SL: 0,3 milioi euro Garaia Teknologia Parkea S. Koop: 9,1 milioi euro).

GFA-REN MENDEKO SOZIETATE EZ FINANTZARIOEN SEKTOREA ETA ERAKUNDE FINANTZARIOEN SEKTOREA

Estatuko Administrazio Orokorraren Artekartzak 2018ko urterako finkatutakoari jarraikiz, GFAREN mendeko Sozietate ez Finantzarioen Sektorea osatzen duten erakundeak honako hauek dira: Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA, SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioa eta Gipuzkoako Urak SA.

Sozietate ez Finantzarioen Sektorearen eta Erakunde Finantzarioen Sektorean barne hartutako erakundeak desoreka finantzarioko egoeran daudela esaten da ezargarriak zaizkien kontabilitateko planaren irizpideen arabera galerak dituztenean eta horiek saneatzeko baliabideen zuzkidura beharrezkoa denean, baliabide horiek eman behar dituen erakundearen egonkortasun egoeran aurreikusi ez direnak. Definizio horren arabera, 2018ko ekitaldian, erakunde guztiak finantza oreka egoeran daude, bakar batek ere ez baitu galerarik izan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

A. 2018KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

Sarrerak	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Gauzat. kobrantzak	Kobr. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Zerga zuzenak	B7.1	2.130.745	66.855	2.197.600	2.273.296	2.273.296	-
2.- Zeharkako zergak	B7.1	2.509.063	57.994	2.567.057	2.521.862	2.521.862	-
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	B7.1	47.455	-	47.455	63.534	63.534	-
4.- Transf. eta dirul. arruntak	B8	115.696	27.654	143.350	148.839	91.904	56.935
5.- Ondare sarrerak		440	231	671	310	273	37
6.- Inbertsio errealen besterentzea .		200	-	200	51	51	-
7.- Kapital dirulag. eta transf.....	B8	4.811	232	5.043	5.611	5.576	35
8.- Aktibo finantzarioak	B9	22.191	13.350	35.541	745	567	178
9.- Pasibo finantzarioak.....	B10	38.000	-	38.000	30.000	30.000	-
SARRERAK GUZTIRA		4.868.601	166.316	5.034.917	5.044.248	4.987.063	57.185

Gastuak	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Gauzat. ordaink.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Langileria-gastuak.....	B3	114.970	157	115.127	111.206	111.198	8
- Bidegi SAK interes tipoaren gaineko swap finantzarioak baliatzen ditu banku sindikazioaren maileguan interes tipoaren fluktuazioen aurrean duen arriskua kudeatzeko. Eragiketa hauekin lotutako Ondare Garbiaren eta Egoeraren Balantzeko Pasiboaren kontuak honako hauek dira:

	Euroak milakotan		
	2018	2017	Bariazioa
EGOERAREN BALANTZEA			
Balio aldaketagatiko doiketak.....	(45.070)	(51.646)	6.576
Finantza deribatuetak.....	46.080	52.656	(6.576)
Beste txikiago batzuk	1	1	-
GUZTIRA	1.011	1.011	-

- Europako Inbertsioen Bankuko maileguez GFaren abala dute eta 2018ko ekitaldi itxieran 388,7 milioi euroren ordaintzeko saldoa dute (ikus B.10).

Bidegi Saren finantza gastuak 2018ko ekitaldian honako hauek dira:

	Euroak milakotan		
	Emaitzetara egotziak	Kapitalizatuak	GUZTIRA
Maileguengatiko finantza gastuak.....	6.976	11.475	18.451
Swapengatiko finantza gastuak.....	4.244	6.980	11.224
GUZTIRA	11.220	18.455	29.675

D.5 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen merkataritzako foru sozietateen 2018ko ekitaldi itxieran Langile gastuen eta plantillaren xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko konparaketa:

	Euroak milakotan					
	Langile-gastuak		Plantilla guztira		Goi zuzendaritza	
SOZIETATEA	2018	2017	2018	2017	2018	2017
IZFE SA	9.428	9.631	(*)154	(*)154	1	1
Bidegi SA.....	1.314	1.127	(**)20	(**) 20	2	2
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.....	524	480	9	9	1	1

(*) 2018/12/31n 17 langilek % 25en lanaldi partzialeko kontratuak dituzte (txandakako kontratuak); (2017an 12 langile ziren).

(**) Izendapen askeko 2 lanpostu barne hartzen dira, goi zuzendaritzako 2 lanpostuz gainera.

2018ko ekitaldiko ordainsari igoera % 1,5ekoa izan da urtarilaren 1etik aurrera eta % 0,25 gehiago uztailearen 1etik aurrera.

D.6 HORNIDURAK ETA USTIAPENENKO BESTELAKO GASTUAK

Saldo esanguratsuak dituzten merkataritzako bi sozietateentzat Enpresa Sektore Publikoaren 2018ko ekitaldiko “Hornidurak” eta “Beste ustiapen gastu batzuen” xehakapena honakoa da:

	Euroak milakotan	
SOZIETATEA	IZFE SA	BIDEGI SA
Salgaien kontsumoa	40	-
Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa	3	-
Beste enpresa batzuek egindako lanak	9.934	-
HORNIKUNTZAK	9.977	-
Errentamenduak	70	21
Aplikazioak, makineria eta ekipoen mantentze-lana.....	4.514	-
Konponketak eta zaintza	-	12.370
Profesional independenteen zerbitzuak.....	433	366
Telefonia eta teleprozesua	399	-
Banku zerbitzuak.....	-	1.647
Hornidurak	112	732
Kudeaket. bst gastu arrunt btz: A-8 eta AP-1-en mantentze-lana eta ustiapena	-	34.823
Kudeaket. bst gastu arrunt batzuk: Trafiko handiko sarearen mantentze-lanak	-	2.014
Merkataritzako eragiketengatik zuzkiduren galerak, narriadura eta bariazioa.	-	448
Beste kontzeptu txikiago batzuk	1.226	274
USTIAPENENKO BESTE GASTU BATZUK	6.754	52.695

D.7 BESTE BATZUK

2018ko ekitaldian, Bidegi SAk 10,9 milioi euroren diru-sarrerak erregistratu zituen (ez dago diru-sarrerarik aurreko ekitaldietan), Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-15 eta N-I trafikoko handiko errepideetan zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duen abenduaren 15eko 7/2016 Foru Arauari jarraikiz. Arau horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu zen EAEANaren aurrean, zeinak, 2018ko apirilaren 9ko epaiaren bidez, zuzenbidearen aurkakotzat jo zuen, baita hura indargabetu ere. GFAk kasazio-errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean, zeinak izapiderako onartu zuen eta, txosten hau idatzi denean, ebazteke dagoen. Beraz, Sozietatearen Urteko Kontuetan jakinarazi ez den zalantza bat dago.

7/2016 Foru Arauak onetsitako kanona kobratzen jarraitu dute 2019ko maiatzera arte: orduan hasi ziren aplikatzen aurrekoa indargabetzen duen kanon berria, 6/2018 Foru Arauak araututakoa. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian 6/2018 Foru Arauaren aurka jarritako errekurtsua ebazteke dago txosten hau idatzi denean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D.8 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2018AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIPZIOA	Mota	Esleipen		Exek. 2018
		modua	zenbatekoa	
IZFE, SA				
Perimetro-segurtasunaren eboluzioa eta hobekuntza	Hornidura	Irekia	157	153
FWren bigarren linearen berritze teknologikoa	Hornidura	Irekia	405	395
Banaturako inguruen biltegitratzearen hedapena	Hornidura	Irekia	174	169
HDIV Enterprise License Agreement	Zerbitzuak	PGPN	229	-
Biltegitratze-azpistemaren mantentzea.....	Zerbitzuak	PGPN	208	-
BIDEGI, SA				
Zestoa-Zumaia ordaintokian kokatutako hondoratzea egonkortzea.....	Obrak	Irekia	451	451
AP-8 errepideko ezponda-proiektua 52+710 eta 52+990 tartetan.....	Obrak	Irekia	538	568
AP-8 y AP-1 errepideetako tarte batzuetako bide-zorua egokitzea	Obrak	Irekia	6.384	2.036
Txautxiko biaduktuen errehabilitazio-erakuntza.....	Obrak	Irekia	771	794
AP-8, GI-20 eta AP-1 errepideak ustiatu, mantendu eta zaintzea (8 urte)	Zerbitzuak	Irekia	348.119	23.571
Bidegi SAren webgunea mantendu eta garatzea (4 urte).....	Zerbitzuak	Irekia	131	66
Tunelen segurtasun- eta gainbegiratze-arduraduna (2 urte)	Zerbitzuak	Irekia	466	126
Aritzetako aparkalekuaren obraren proiektua eta exekuzioa idaztea	Zerbitzuak	Irekia	1.555	738

PGPN: Publikotasunik gabeko prozedura negoziatua.

AURREKO URTEETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	Hasierako urtea	Esleip. zkoa.	EXEKUZIOA			Egoera
			17.12.31	2018	18.12.31	
IZFE SA						
ZERGA zerga-kudeaketa plataforma berria I fasea	2014	4.476	3.691	1.446	5.137	Amaituta
AM lagun. teknikoko, aholkularitzako eta garapen informat. zerb. (4 urte)	2015	ap	16.735	8.551	25.286	Exekuzioan
Microsoft lizentzia (4 urte)	2016	608	372	193	565	Exekuzioan
Inguru hostil eta banaturako makina, programa eta zerbitzuak (3 urte).....	2016	10.337	4.131	3.028	7.159	Exekuzioan
Zuntz optikoko konexioa GFA eta IZFE egoitzen artean (4 urte).....	2016	599	150	146	296	Exekuzioan
VPS familiako produktuen lizentzien babesa eta mantentzea (3 urte)	2017	192	64	62	126	Exekuzioan
KONTUA zerga-bilketako kudeaketa-sistema informatiko integrala	2017	4.368	437	639	1.076	Exekuzioan
Inpresio digitalerako zerbitzua, makinak eta lizentziak (4 urte)	2017	599	177	45	222	Exekuzioan
Biltegitratze-azpistemaren mantentzea (1 urte).....	2017	205	-	200	200	Amaituta
BIDEGI SA						
Beharpen-planaren erabiltzaileen TAG gailua (4 urte).....	2014	1.220	968	305	1.273	Exekuzioan
Aldatuta 1.....	2015	54				
GI-632 errepideko (Antzuola-Bergara) obrak amaitzea	2016	(*41.724	13.420	22.547	35.967	Exekuzioan
THG gaitasun handiko sarearen azpiegituraren kobrantza-sistema	2016	19.293	7.944	7.231	15.175	Exekuzioan
Aldatuta 1	2017	364				
Aldatuta 2,3 eta 4	2018	4.581				
AP-1 eta AP-8 errepideetako hornidura elektrikoa eta laguntza teknikoa efizientzia energetikoa hobetzeko (2 urte).....	2016	3.684	2.214	1.203	3.417	Amaituta
GI-632 errepideko (Antzuola-Bergara) obrak amaitzeko zuzendaritza.....	2017	1.959	679	908	1.587	Exekuzioan
Zarazko ordaintokietako instalazio elektrikoak berritzea.....	2017	1.539	230	1.309	1.539	Amaituta
AP-8 errepideko bide-zorua errehabilit. 0+000 eta 7+500 artean (Behobia)	2017	1.497	1.165	359	1.524	Amaituta
AP-1 eta AP-8 lotunea (Maltzaga) segurtasuna hobetzeko proiektua.....	2017	3.327	-	3.969	3.969	Amaituta
Aldatuta 1	2018	315				
Ezponden arriskuak kudeatzea eta berrikuspen geoteknikoko lanak.....	2017	1.176	-	267	267	Exekuzioan

ap Aleko prezioen bidez esleitua.

(*) BEZik gabeko zenbatekoa, subjektu pasiboaren inbertsioagatik



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. FORU FUNDAZIOAK

E.1 LANGILERIA-GASTUAK

Foru fundazioen langileen gastuak eta amaierako plantillak honako hauek dira:

FUNDAZIOA	Euroak milakotan					
	Langile-gastuak		Plantilla guztira		Goi-mailako karg.	
	2018	2017	2018	2017	2018	2017
Sueskola	641	587	12	12	-	-
Adinberri	23		1		1	
Aldaketa klimatikoa	16		1		1	
Ziur.....	42		1		1	

Sueskola Fundazioaren 2018ko ekitaldiko ordainsari-igoera % 2koa izan da 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

E.2 MONETA-LAGUNTZAK

Kirolgi Fundazioak bi jarduera-lerro garatzen ditu, Patronatuak 2018an onartutakoak, eta guztira 2,8 milioi euroren gastua izan dutenak:

- 2018an kategoria gorenetan lehiatzen diharduten taldeak dituzten Gipuzkoako clubei laguntza-lerroa, guztira 2,4 milioi euroren gastuarekin. Laguntza hauek jaso dituzten clubak 21 izan dira eta talde onuradunak, berriz, 32.
- Banaka eta taldean parte hartzeko modalitateetan diharduten kirolariei laguntza-lerroa, 353.403 euroren gastua eragin duena. Laguntza-lerro honek bi jarduera-atal ditu:
 - Kirol-jarduerarako laguntzak (93 onuradun).
 - Prestakuntza akademikorako emandako laguntzak (66 onuradun).





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrari egindako fiskalizazioaren emaitzei erantzuna ematearren, eta otsailaren 5eko 1/1998 Legearen 13. artikuluan zehaztutakoa betez, txosten honetan aurkezten ditugu aipatutako emaitzei dagozkien alegazioak eta justifikazioak.

II. IRITZIA

II.1 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEK LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- GFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2018an 43 langileri guztira 1,4 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikuluaaren arabera jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoï objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik. Kaleratze edo kargugabetze horien kalte-ordainak, aldiz, PFEZetik salbuetsita daude, PFEZaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Aruaren 9. artikuluan jasotakoari jarraituz (ikus B.3 eranskina).

ALEGAZIOA

Diputatuen Kontseiluaren 2013ko urriaren 15eko Erabakiaren bidez (urriaren 17ko GAO, 199. zenbakia) aldatu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideen Plan Estrategikoaren Lehenengo Tituluko II. Kapituluari jasotako 2.4 eta 2.5 puntuak. Plan hori onartu zen Diputatuen Kontseiluaren 1998ko urtarrilaren 7ko Erabakiaren bidez, eta aldatu zen 1998ko martxoaren 24ko eta 2009ko uztailaren 7ko erabakien bidez.

Zehazki, neurri hauek arautzen dira bertan:

- 2.4 neurria.- Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionarioen edo lan kontratupeko langile finkeen erretiro aurreratua.
- 2.5 neurria.- Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izateari uko egite saritua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren laneko etekin gisa sartu zituen (190 eredu) 2018an ordaindutako borondatezko erretiroagatik sariak eta uko egite sarituak, eta salbuetsizat jo ziren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak xedatutakoaren arabera. Izan ere, foru arau horretan ezarrita



dagoenez, salbuetsitakotzat jotzen dira herri administrazioek giza baliabideen arloan egiten dituzten plan estrategikoen ondorioz langileak kargugabetzeagatik jasotako kalte-ordainak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideen Plan Estrategikoak, 2009ko uztailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aldaketak, berariaz aipatzen ditu foru erakunde honetako plantilla birdimentsionatzeko neurriak, eskura dituen giza baliabideak ordenatu eta planifikatzeko xedez onartutakoak. Aipamen horrek lotura garbia du langileen Estatutuko 51. artikuluan aurreikusitako antolakuntzazko kausekin, kaleratze kolektiboaren figura arautzen baita bertan.

Beraz, antolakuntzazko kausa hori egoki egiaztatzen da aurreko Giza Baliabideen Plan Estrategikoan, eta beraz, bat dator langileen gastuen arloko araudiarekin.

- *GFAk bost kontratu iraungi ostean gizarte zerbitzuak ematen jarraitu du, 5,1 milioi euroren gastua dutenak, kontratazio-araudiaren arabera eskagarri zitezkeen esleipen prozedura irekiak saihestuta; prozedura horiek gerora abiarazi dira (ikus B.13.2 eranskina).*

ALEGAZIOA

Gizarte larrialdietako foru zerbitzuaren kontratua da aipatutako lehen espedientea. Kontratua 2016ko uztailaren 30ean amaitu zen. Urte bereko abuztuaren 22an, kontratazio espediente berria hasi zen, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuaren justifikazio-memoriarekin batera. Izapidetze hori atzeratu egin zen, bai organo eskudunak kontratazio espedientea onartu aurreko fasean (2017/07/26), bai egikaritze fasean, zuzendu ezineko akats bat detektatu ondoren atzera egitea erabakitzean. Kontratazio espediente berria 2017ko azaroaren 7an onetsi zen, iragarkia 23an argitaratu zen eta kontratu berria 2018ko apirilaren 12an formalizatu zen.

Aipatutako bigarren eta hirugarren kontratuak lotuta daude, alde batetik, Loistarain eta Zarategi adingabeentzako babes zentroen kudeaketari (2017ko irailean amaitzen zen bigarren kontratua) eta, bestaldekik, Beasain eta Zizurkilgo zentroen kudeaketari (2017ko maiatzean amaitzen zen hirugarren kontratua). Zentro guztiek tipologia bera zuten, oinarritzkoa hain zuzen, kontratuak sortatan, kontratazio espediente bakar batean, izapidetzea erabaki zen, baina espediente hori ez zen 2018ko otsailaren 27a arte onetsi. Kontratua 2018ko uztailaren 2an formalizatu zen.

Aipatutako laugarren kontratuari dagokionez (Elizaran egoitza), hau izan zen izapidetzean izandako atzerapenaren arrazoia: aurreko kontratuen xedeari eraikin berean kokatutako babespeko apartamentuen kudeaketa sartzea erabaki zen. Erabaki hori Donostiako Udalarekin adostutako akordio baten emaitza izan zen, zeinak 2018ko uztailaren 19an egindako osoko bilkuran GFARI agindu baitzion haien kudeaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin zuen kontratazio espedientea onetsi Udalbatzak akordioa onetsi arte. Onespen hori astebete geroago adostu zen, 2018ko uztailaren 24an. Kontratazio



espedientearen izapidetzea atzeratu egin zen, kontratazio-errekurtso berezi bat jarri zelako 2018ko abuztuaren 10ean; Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak ezetsi egin zuen errekurtso hori 2019ko urtarrilaren 30ean. Espedientearen izapidetzeari ekin zitzaion berriro, eta kontratua 2019ko martxoaren 15ean formalizatu zen.

Bosgarren eta azken kontratua babesgabetasun egoeran dauden adingabeen familia harrerako laguntza zerbitzuari buruzkoa da. Espedientearen izapidetzea zerbitzuaren 2018ko uztailaren 2ko justifikazio memoriarekin hasi zen; Diputatuen Kontseiluak 2018ko uztailaren 24an onetsi zuen espedienteak; eta kontratua 2018ko abenduaren 3an formalizatu zen.

- *GFAk hamaika hornitzaileekin kontratatu du arreta goiztiarraren tratamendu-zerbitzua; 2018ko ekitaldian gastua 725.540 eurorena izan zen, espedientearen izapiderik gabe. Beraz, prozedura irekia erabili behar izan zen.*

ALEGAZIOA

Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua dekretu honetan definituta dago: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. Erregulazio espezifikoak Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren xedea da.

Arreta goiztiarrean, inplikaturako sistemen (hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) jardueren koordinazioa funtsezko elementua da sistema antolatzeke. Sistemaren beraren antolaketak (prozesua bukatu gabe dago) zail egin du haur garapenerako eta arreta goiztiarrerako zentroak geroago garatzea. Departamentuaren jardunaren ardatza profesionalen kontsultak baimentzea, erregistratzea eta homologatzea izan da. Jarduera pribatuaren esku-hartzeak ere zailtasunak ditu, gizarte zerbitzuen arloan aurrekaririk ez dagoelako. Beste lurralde historiko batzuek erabilitako formulak aztertuta partaidetza eredu definituko da.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.A GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

III.A.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- *GFAk Gipuzkoako Hondakin Kontsurtzioaren urteko kontuen auditoretza egin du, zeina nahitaezkoa den bertara adskribaturako partzuergoentzat.*

ALEGAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzendu du akats hori eta kontratatu du Gipuzkoako Hondakin Kontsurtzioaren 2019ko urteko kontuen auditoretza.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.A.2 SARRERA FISKALAK

- *GFAk hiru zordunei zegozkien zerga-zorrak eman ditu bajaran 2018ko ekitaldian, 337.950 euroren zenbatekoarekin, erantzukizun subsidiarioaren eratoritze prozedura bat abiarazteko diru bilketa jarduketak egin gabe, araudian xedatzen den moduan.*

ALEGAZIOA

Atal honetan aipatzen direnak aztertu baino lehen, esan behar da kasu guztietan zordun nagusiaren aurrean araudiak onartzen dituen neurri eta egintza guztiak burutu direla. Hala ere, horiek ezin izan dute zorraren preskripzioa saihestu.

Erantzukizunaren deribazioari dagokionez, deribazioaren irizpideak kudeaketa erabakia da. Horretan kontuan hartzen dira deribazioaren zenbatekoa, zorra kitatzeko aurreikusten den arrakasta eta, noski, Zerga-bilketa Zerbitzuak dituen baliabide tekniko eta materialak.

Aipatutako zordunen analisia:

- B20814588, 133.678 euroko zorra.

Zorraren preskripzioari buruzko txosten proposamena: 2018-06-07.

Behin zordunaren kaudimen gabezia baieztatuta, 2012-11-13 datarekin kobragaitz deklaratu zen. Esan behar da nahiz eta administratzaileak bazeukala bahigarria zen ondarea; hori ez zela nahikoa zorra kitatzeko, bere jabetzan zeuzkan finkak bankuen hipotekak zeuzkaten eta. Horrez gain, garai hartan eta kontuan izanda espediente kopuru handia berrikusteko zerbitzuan zeuden baliabideak, lehenesten ziren zenbateko handiko espedienteak eta ez ziren egiten zerga erantzukizun prozedurak zorra 150.000 eurokoa baino txikiagoa bazen.

- B20732111, 88.801 euroko zorra.

Zorraren preskripzio partzialari buruzko txosten proposamena: 2018-06-11.

Kasu honetan ere, premiazko espedientean posible diren egintza guztiak burutu dira, baina horiek ezin izan dute zorraren preskripzioa zati batean saihestu.

Aurrekoan esan dugun bezala, garai hartan eta kontuan izanda espediente kopuru handia berrikusteko zerbitzuan zeuden baliabideak, irizpidea zen zenbateko handiko espedienteak lehenestea eta, beraz, ez zen zerga erantzukizuneko prozedurarik egiten zorra 150.000 eurokoa baino txikiagoa bazen.

Hala ere, kasu honek ez zeuzkan deribazio prozedura hasteko ezaugarri arruntenak: entitateak zerga ereduak aurkezten zituen, beraz zaila zen jardueraren falta egiaztatzea, ez zegoen enpresa oinordetza zantzurik eta ez zegoen ikuskapen aktarik likidazioen artean.



- B20474607, 115.471 euroko zorra.

Zorraren preskripzioari buruzko txosten proposamena: 2018-11-13.

Zorraren eta epe exekutiboan eginiko egintzen inguruan esan behar da borondatezko epean Kudeaketa Zerbitzuak 2013ko ekitaldian eginiko jakinarazpena (GAOn argitaratu zen entitatearen zerga helbidean lortu gabe saiatu ondoren) ez zela zuzena izan. Data horretan Gipuzkoako Foru Ogasunak bazekien entitatearen disoluzioa eta likidazioa egina zegoela. Hori dela eta, jakinarazpenak ez ziren sozietateari egin behar, horren oinordekoei baizik, Zergen Foru Arau Orokorraren 40.1 artikulua esaten duenaren arabera.

Nahiz eta borondatezko epeko jakinarazpena okerra izan, zorra epe exekutibora pasa zen eta premiazko prozedura hasi zen. Prozedura tramitatu zen aipatutako jakinarazpen okerra egiaztatu arte. Momentu horretan zorra preskribituta zegoen.

- *Zerga-zorrak ordaintzeko bi zatikatze espedientetan, 1,4 milioi euroren zenbatekoarekin, zatikatzea esleitzeko gehieneko epea gainditzen da, eta ez dira nahitaezko bermeak osatu txosten hau idatzi denean.*

ALEGAZIOA

Bi espediente lotuta daude: espediente horietako baten zorduna pertsona fisikoa da, eta hura, aldi berean, pertsona juridikoa den beste espedienteko zordunaren administratzailea da. Horregatik, hasierako atzerapena zor guztia ondo finkatu nahi zelako izan zen, horrela egoera ondo aztertu ahal izateko.

Horrez gain, eskaerak egin zirenean horiek ez zuten betetzen zatikapena eskatzeko baldintzak eta ez zen igorri Zerga-bilketa Erregelamenduak ezartzen dituen dokumentazioa. Beraz, Erregelamenduren 38.4 artikuluari jarraikiz, dokumentu horiek eskatu ziren.

Tramitazioa aurrera joan ahala, bi zordunei errekerimenduak bidali zitzaizkien berriro, kasu honetan eskainitako bermeen inguruan, Zerga-bilketa Erregelamenduaren 40.5 artikulua esaten duenaren arabera. Hasieran eskainitako bermea oso konplexua izan zenez, geroago higiezin bat eskaini izanak ondare aldaketa ekarri zuenez eta hainbat momentutan eskatutako datuak egiaztatu behar zirenez, espedienteak atzerapenez ebatzi ziren.

Bi kasuetan, tramitazioak iraun zuen bitartean behin behineko ordainketa plana ezarri zen, eta hori bete egin zen.

Bermeen osaketari dagokionez, aipatu dugun bezala, konplexua izan da, bai beren objektuagatik, bai partaidetza sozialen pignorazioagatik, bai bi espedienteetan banatu beharreko moduagatik.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- GFak ez du banaketari lotutako diru bilketa moduan aitortu berandutze interesen % 10,6, hau da, 590.159 euro guztira. Ehuneko hori, azken ekitaldian errepikatzen dena, aspaldi egin ohi zen estimazioa da, banaketari lotuta ez zeuden tributuek, orduan, eragiten zituzten kobrantzen kontzeptuan. Uste dugu tributu horiek modu zehatzean identifikatu behar direla, eta ez, ordea, modu estimatuan.

ALEGAZIOA

2018an hainbat aldaketa egin dira zerga kudeaketarako erabilitako aplikazio informatikoan. Haiei esker, 2019an berandutze interes horien zati handi samar bat identifikatu ahal izango dira.

III.A.4- DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntza izendunak

- Lau unibertsitateri guztira emandako 1,2 milioi euroren dirulaguntzetan, ez dira egin haiekin sinatutako hitzarmenetan jasotako jarraipen batzordeen lau hilabeteko aktak (1, 2, 3 eta 4 espedienteak). Gainera, dirulaguntza horietako hirutan (guztira 900.000 euro; 2, 3 eta 4 espedienteak), aurkeztutako aurrekontua ez dago kuantifikatuta diruz lagundutako jarduerara bakoitzera.

KONTZEPTUA	Onur.	Euroak milakotan		
		D fasea 2018	Konpr.k. D fasea	Hutsak
DIRULAGUNTZA IZENDUNAK				
DIPUTATU NAGUSIA				
1. Euskal Herriko Unibertsitatea	ISAL	150	150	B2,4
2. Mondragon Unibertsitatea	EMP	150	150	B1,2,3,4
3. Deustuko Unibertsitatea	ISAL	150	150	B1,2,4
4. Nafarroako Unibertsitatea Tecnum	ISAL	150	150	B1,2,4

ALEGAZIOA

Lehen puntuari dagokionez, honekin batera bidaltzen dira 2018an Deustuko Unibertsitatearekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Mondragon Unibertsitatea eta Tecnum Unibertsitatearekin egindako jarraipen batzordeen bileren aktak.

Bigarren gorabeherari dagokionez, entitate bakoitzaren ikerketa eta ekintza ildoak zehaztuta daude 2, 3 eta 4 espedienteetan sinatutako hitzarmenen 2. eranskinean.

Bertan, nahiz eta ikerketa eta ekintza horiek xehetasunez adierazita egon, entitate bakoitzaren ikerketa eta ekintza ildoak zehazten dira. Kopuru finko bat adierazita dago, denak finantzatu ahal izateko, eta horixe ordainduko du gehienez Gipuzkoako Foru Aldundiak.



Hitzarmenak prestatzean, zailtasun handiak izan ziren ildo bakoitzari kopuru jakin bat esleitzeko. Hitzarmen horien xede nagusia ikerketa denez, ez da erraza zehaztea zenbat lanordu behar diren arlo bakoitzean jarritako helburuak lortzeko. Hau da, ezinezkoa da jakitea zenbat ikerketa ordu behar diren ildo jakin bati lotutako helburuak lortzeko.

Hori horrela, hitzarmen horien kasuan, erabaki zen oroharreko prezio bat ezartzea. Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa finkatu zen, eta hitzarmenak exekutatzaren direnean ildo bakoitzaren beharren arabera zehaztuko lirateke ildo bakoitzari esleitu beharreko kredituak.

Urte amaieran, gauzatutako ildoen kontu zurigarriak aurkezten direnean, argi eta garbi zehazten da zer ildora bideratu diren kredituak.¹

- *GFAk kirol sozietate anonimo bati esleitutako dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean, klubak 2017-2018 denboraldiko ACB ligan (2018ko urtarril-ekaina) izan duen parte hartzearen finantzaketari laguntzeko eta saskibaloia sustatzeko, 400.000 euroren truke (8 espediente), zehazten da dirulaguntzaren zenbatekoak ez duela inolaz ere gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua, bai bakarrik edo bai bestelako dirulaguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera. Denboraldi horretarako ikuskatutako kontuek 306.613 euroren mozkinak islatzen dute; beraz, hitzarmenaren xedea betetzearekin ordaindutako zenbatekoa berrikusi beharko litzateke, eta, hala badagokio, diruz lagundutako gehiegizko zenbatekoaren itzulketa proportzionala eskatu.*

ALEGAZIOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, 2018ko ekainaren 30ean itxitako kontuei dagozkien galeren eta irabazien kontuaren emaitza positibotik abiatuta, adierazten du bidezkoa dela ordaindutako zenbatekoa berrikustea eta, hala badagokio, erakunde onuradunari eskatzea diruz lagundutako soberakinaren itzulketa proportzionala egiteko.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitakotik abiatuta, espedientearen dagoen justifikazioa berrikusi da, eta, horren ondorioz, honako hau adierazi da:

1.- Donostia Gipuzkoa Basket 2001 SKE-SAD sozietatearen ekitaldi ekonomikoa uztailearen 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era bitartekoa da.

2.- 2017-2018 ekitaldi ekonomikoan, Donostia Gipuzkoa Basket 2001 SKE-SAD enpresak 900.000 euroko bi diru-laguntza jaso ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Lehenengoa, 500.000 eurokoa, 2017ko aurrekontuaren kontura, eta bigarrena, 400.000 eurokoa, 2018ko aurrekontuaren kontura.

¹ Atxikitako aktek ez dituzte hitzarmenetan zehaztutako baldintzak betetzen eta horietako hirutan, aktaren data sinatutako hitzarmenarena baino lehenagokoa da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3.- Lehenengo diru-laguntzaren helburua zen ACB ligan klubaren izen-ematea finantzatzea, ACB ligan parte-hartzea finantzatzea eta Gipuzkoan saskibaloia sustatzea. Bigarren diru laguntzak, berriz, ACB ligako txapelketan parte hartzea finantzatzea eta Gipuzkoan saskibaloia sustatzea aurreikusten zuen.

4.- 2017-2018 ekitaldi ekonomikoari dagozkion urteko kontuetatik honako hau ondorioztatzen da:

- Donostia Gipuzkoa Basket 2001 SKE-SAD enpresak 404.021 euro ordaindu zituen ACB ligan parte hartzeko eskubideagatik. Eskubide hori erakundearen balantzean agertzen da, aktibo ez-korrontearen epe luzeko finantza-inbertsio gisa.
- Galdu-irabazien kontuan Foru Aldundiak ordaindutako bi diru-laguntzak ageri dira, ustiapeneko beste diru-sarrera batzuen epigrafean 900.000 eurokoak.
- Galera eta irabazien kontuaren emaitza 306.613,59 eurokoa da.

Emandako diru-laguntzetatik eratorritako diru-sarreraren (G eta I) eta diruz lagundutako gastuen (aktibo ez-korrontea eta G eta I) arteko korrelaziorik ez izateak emaitza positiboa dakar ekitaldian, baina horrek ez du esan nahi emandako diru-laguntzen zenbatekoak diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duenik.

Hala, galdu-irabazien kontuaren emaitza ACB ligan parte hartzeko eskubidea finantzatzeko balio izan duen diru-laguntzaren zatia kenduz doituko balitz, eskubide hori balantzearen aktiboan agertzean, emaitza 97.407,41 euroko galera izango litzateke.

Beraz, ondoriozta daiteke Donostia Gipuzkoa Basket 2001 SKE-SAD enpresari ordaindutako diru-laguntzek ez dutela gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, eta, ondorioz, ez dagoela diru-laguntza gehiegirik eta ez dela bidezkoa inolako itzulketarik eskatzea.

Dirulaguntza zuzenak

- 270.000 euroren truke emandako dirulaguntza zuzen batean (2 espedientea) ez dira xehatu diruz lagundutako jarduerak, eta ez da esleipena argitaratu

KONTZEPTUA	D fasea		Konpr.k.	Hutsak
	Onur.	2018	D fasea	
ZUZENEKO DIRULAGUNTZAK				
DIPUTATU NAGUSIA				
2. Euskampus Fundazioa	ISAL	200	70	A1,D

ALEGAZIOA

EUSKAMPUS FUNDAZIOA:

Lehenengo puntuari dagokionez, 2019ko ekitaldian eta 2020ko ekitaldian dirulaguntza izendun moduan tramitatu da Euskampus Fundazioaren aldeko laguntza.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bigarren intzidentzian adierazten denez, «ez dira xehatu diruz lagundutako jarduerak», eta ez gaude ados baieztapen horrekin.

Hitzarmenaren lehenengo estipulazioan zehazten dira berrikuntza publikoko ekimenaren ikerketa eta ekintza lerroak, unibertsitaeekin egiten den moduan.

Jarraian bost lan lerro horiek zehazten dira; hauexek dira Euskampus Fundazioaren kasuan:

- 1.- Modelizazioak garatzea, zeintzuk azaldu eta iragarriko duten nola garatzen, zabaltzen eta hartzen diren berrikuntza publikoak, arreta berezia jarriz testuinguruaren arabera alderdiei. Nahi izanez gero, berrikuntza publikoko erduei buruzko ikerketa egitea.
- 2.- Hainbat eskualde eta herrialdeetako berrikuntza publikoari buruzko azterketa alderatuak egitea. Esparru teoriko eta metodologiko komunetan oinarritutako azterketa alderatuak dira.
- 3.- Berrikuntza publikoen bereizketa kontzeptuala eta praktikoa, horiek funtsean politikoak izan edo administratiboak izan. Nahiz eta berrikuntza publikoari buruzko literaturan arlo bat zein bestea normalean lotuta egoten diren, praktikan desberdintasunak handiak dira, eta premiazkoa da terminologia argitzeko ahalegin bat egitea.
- 4.- Berrikuntza publikoko gobernu ekimenetan edo ekimen administratiboetan parte hartzea, horiek “push” estrategietara (erabakiak hartzea) bideratuta egon edo “pull” estrategietara (eztabaida prozesuak) bideratuta egon.
- 5.- Sakabanaketa akademikoa, eragile heterogeneoek garatutako esperimentazio prozesuetan lortutako ereduak eta emaitzak ulertzen oinarritutakoa (hibridazioa).

Beraz, HKEEK adierazi duen ez bezala, lan lerroak zehaztuta agertzen dira hitzarmenean eta uste dugu modu zuzen batean mugarrizten dela; berez, horren zabala den esparru bat, berrikuntza publikoarena alegia.

- 2018ko azaroaren 13an, Diputatuen Kontseiluak Irungo Udalarari 6 milioi euroren dirulaguntza (6 espedienteak) esleitzea adostu zuen Hegoaldeko Ingurabidea delakoaren lehen faseko obretarako; obren exekuzioa 2019-2021 aldirako aurreikusitua zen. Dirulaguntza horren aurrekontu esleipena 2018ko ekitaldian jasotzen da, eta, kontuan hartuta azpiegitura horiek ez direla esleitu ere egin 2018ko ekitaldian, 2019ko ekitaldiko aurrekontuan gehitu behar litzateke, Batzar Nagusiek onetsitako dirulaguntza izendun moduan, dagokion esleipenarekin 2020ko eta 2021eko konpromiso kredituetan.

ALEGAZIOA

Dirulaguntza hori emateko, kreditu gehigarri bat onartu zen diruzaintzako gerakinaren kargura, betiere martxoaren 23ko 1/2018 Errege Lege Dekretuko 1. artikuluan exekutatu gabeko kredituak 2019an txertatzeko jasotzen duen aukerari jarraituz. Honela dio artikulua horrek: “Ezinezkoa bada inbertsio proiektu jakin bat oso-osorik 2018. urtean exekutatzeko,



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

beste aukera bat ere badago: 2018. urtean baimendutako gastutik falta den zatia 2019ko ekitaldian aitortzea eta 2018ko diruzaintza geldikinetik finantzatzea. Zenbateko hori helburu horretarako lotuta geratuko da, eta toki korporazioak ezingo du, 2019aren amaieran, defizitik eduki”.

Lege testu horren azalpen zatiak bide ematen du interpretatzeko, artikulua horrekin lotuta, ezen inbertsioaren 2018ko ez-exekuzioa hasieratik bertatik ezagutzen zela, baita gastu xedapena bera ere. Hitzez hitz honela dio: “Orobat, aintzat hartu behar da superabitaren xedeari buruzko arau bereziaren luzapena eraginkortasunik gabe geratuko litzatekeela, baldin eta galdutako balitz gastua exekutatzeko prozeduraren baimen-, xedapen- edo konpromiso-faseak, kasu guztietan, 2018an egitea; horregatik, azken fase horren garapena ez da ekitaldi horretan eskatu behar. Alabaina, horrek ez du kentzen arau hau presakoa izatea; izan ere, inbertsio proiektu askoren kontratazio-prozedura —izaera eta diru kopurua ikusita— ahalik eta azkarren abiarazi behar da, gastua baimentzeko fasea oraingo ekitaldian amaitu ahal izan dadin.”

II.A.6 LANGILERIA GASTUAK

- *GFAk 2018ko ekitaldirako produktibitate osagarri ez finkagarria onartu du lan absentismoaren indizeari loturik; osagarri hau 540 eta 600 euro bitarteko ordainketa bakarrean ordaintzen da eta 2018ko ekitaldian 1,1 milioi euroren gastua eragin du. Produktibitate osagarria langile bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.*

ALEGAZIOA

Absentismo indizea handituz joan da pixkanaka –arrazoi askorengatik, besteak beste, gure langileen batez besteko adin handiagatik–, 2014ko irailean batezbestekoa % 5,27 izatetik 2017ko hilabete berean % 6 izateraino. Joera goranzkoa da, eta larritzekoa ez bada ere, erakusten du arazo izan daitekeela epe ertainera, horrek Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat duen kostu ekonomiko, antolakuntzako eta funtzionalarekin.

Horretaz jabeturik, lan absentismoa kontrolatzeko ezarritako neurriez gain, hala nola 2012ko abenduaren 9an langileen ordezkariekin adostutako akordioa, zeinaren arabera lanerako ezintasunagatik hartutako gaixoaldiaren lehen egunetik bere langileei lansarien % 100 ordaintzeko baldintza izango baitzen erakunde osoaren absentismoak ez gainditzea % 7a; 2017. urtean, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen 2017ko ekitaldirako produktibitate osagarri bat ezartzea Foru Aldundiko langile bakoitzarentzat, urte horretako norberaren absentismo indizeari loturik egongo zena.

Akordio hori eraginkorra izan da azken urteotan goranzko joera izan duen absentismoa zuzentzeko; izan ere, 2017ko irailean absentismo tasa % 6koa izatetik 2018ko abenduan, berriz, % 5,93koa izatera pasa baitzen. Beherakada ez da oso nabarmena izan, baina, hala ere, joera aldaketa baten adierazgarri izan daiteke.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bilakaera hori ikusita, 2018. urtean beharrezkotzat jo zen berriz onestea produktibitate osagarri bat Foru Aldundiko langile bakoitzarentzat, norberaren absentismo indize partikularrari lotuta egongo dena, aurreko urtekoaren aldean 400 euro gehituz, absentismo tasaren gaineko eragina handiagoa izan dadin eta modu nabarmenagoan murriztu dezan.

Produktibitate osagarria, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 79. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordainsari osagarri bat da, eta, bestek beste, saritu nahi ditu etekin berezia eta funtzionarioak bere lanpostuan jartzen duen ardura eta ekimena.

III.B ERAKUNDE AUTONOMOAK

III.B.1 LANGILERIA GASTUAK

Uliazpi

- *Uliazpi Fundazioak bi ordainketa egin ditu 2018 ekitaldian, GFaren produktibitate osagarriaren asimilazio kontzeptuan, 200 eurorena 2017ko ekitaldian eta 600 eurorena 2018ko ekitaldian: guztira, 50.707 eta 162.088 euroren gastua ekarri dute, hurrenez hurren. Ordainketa horiek izaera ez kontsolidagarria dute, eta kontratatutako urteko lanaldiarekiko proportzioan ordaintzen dira. Produktibitate osagarria langile bakoitzak bere esku dauden egitekoetan izan duen errendimendua, interesa edo iniziatiba berezia ordaintzeko erabili beharko litzateke.*

ALEGAZIOA

Uliazpin dagoen produktibitate osagarria, epaitegi horren txostenean bertan esaten den bezala, "GFaren produktibitate osagarriarekin parekatzekoa" da. Eta Gipuzkoako Foru Aldundian, berriz, Diputatuen Kontseiluak 2019ko abenduaren 3an hartutako Erabakian dago deskribatuta.

Uliazpiren barne araudi konbentzional eta itunduan eta "Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionarioen lan baldintzetan" egindako erreferentziak, Diputatuen Kontseiluak Erabaki deskribatuaz gain, honako hauek dira:

Hitzarmen kolektiboa.

- 8. artikulua. Ordainsari osagarriak.

Pertsonen Erregelamendua.

- 15. artikulua. Ordainsari osagarriak

7.- Produktibitate osagarria (CPR). Hitzarmen Kolektiboa (2018-2019) indarrean dagoen urteetan, 600 euroko ordainsaria ordainduko da produktibitate osagarri gisa, 2018rako, eta 700 eurokoa 2019rako. Ordainsari horiek ez dira finkagarriak



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

izango, eta kontratatutako urteko lanaldiaren proportzioan ordainduko dira osorik.

- 25.a) artikulua. Gaixotasunagatiko edo istripuagatiko lizentzia.

8.- Absentismoa kontrolatzeko neurriak.

5.) Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua 5. apartatua aurreikusitakoaren ondorioetarako, osagarri horien eraginkortasuna aipatutako errege lege dekretuan ezarritakoaren ondorioetarako Aldundian hartu den absentismo indize beraren mende egongo da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionarioen lan baldintzak

- 20. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionarioen lizentziak.

a) Gaixotasun edo istripuagatiko lizentzia.

5. Lanerako aldi baterako ezintasuneko egoeren kasuan, langileek ordainsarien ehuneko ehun jasoko dute, erakundearen absentismo indize orokorra % 7 baino handiagoa ez izateari lotuta.

Kabia

- *Oso-osorik enpresa batek kudeatzen dituen zahar egoitzetako egoitza zerbitzuaren erakunde esleipendunek kontratatutako langileen gaineko kontrolik ez da egin; beraz, ez dira kontuan hartu 2018an zentro horietan deitutako 16 greba egunen ondorioak*

ALEGAZIOA

Egoitzaren kudeaketa era integralean enpresa batek egiten duen kasuetan, KABIAk ez zuen deskonturik aplikatu Aldundiaren irizpidearen zain zegoelako. Deskontuak 2019an aplikatu dira.²

- *Lanpostu zerrendak ez ditu barne hartzen Andoaingo, Bergarako eta Ordiziako egoitzetako lanpostuak; bertako langileak subrogatuak izan dira 2018an, eta 52 dira guztira.*

²

Alegazioak aipagai dituen diru-kenketak 2019ko ekitaldiko greba egunei dagozkie.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

HKEEK dakien bezala, 3 egoitza horiek Aldundia mailakako prozesu batean kudeatzen hasi zen 16 udal egoitzen barruan daude; prozesu hori 2015an hasi zen eta 2020an amaituko da. Foru organismo autonomoan sartzen ari diren lanpostuei dagokienez irizpideak bateratzeko asmoz, erabaki zen gaiari 16 egoitzak KABIAN sartu ondoren heltzea. Ordura arte, KABIak bere gain hartu dituen egoitzetako langileei aplikatzen zaizkie kasuan kasu aplikatzen zaizkien arauari jarraituz (Langileen Estatutua, EBEP eta azaroaren 6ko 12/2014 Foru Araua), dituzten lan baldintzak eta egoera bereziak.

III.B.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Adierazi behar da 2019an zuzendu direla Kontuen Epaitegiak Uliazpi Fundazioko zerbitzu medikoei, errehabilitazioko berariazko programei (musikaterapia) eta aisialdi eta udaleku jardueri eta paleten hornidurei lotutako kontratuei dagokienez aipatutako hutsuneak.

Gauza bera adierazi daiteke Kabiako organismo autonomoaren hornidurako eta garbiketa produktu etako kontratuei dagokienez: 2019an araudi aplikagarriaren arabera egin da kontratazioa.

III.D FORU FUNDAZIOAK

Kirolgi Fundazioa

- *Fundazioaren Patronatuko Batzordeak 2017-2018ko aldiko aurrekontua onartu du, kirol elkarteei emango zaizkien dirulaguntzen xehakapen banakatua eginez eta dirulaguntza izendun izaera emanez. Alabaina, xehakapen nominatibo hau ez zaio GLHren 2018ko ekitaldiko aurrekontu-proiektuari txertatzen, Batzar Nagusien aurrean aurrekontua onartzeko izapidetu dena. Dirulaguntza izendun izaera izan dezan, xehakapena aurrekontua izapidetzean barne hartu behar da. Fundazioaren kontuetan dirulaguntza hauen kontzeptuan erregistraturiko gastua 2,4 milioi eurorena da (ikus E.2). Bestetik, emandako dirulaguntzak justifikatzean ez zaie onuradunei eskatzen dagozkion gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana justifikatzeko, dirulaguntzei buruzko araudiak hala eskatzen duen kasuetan.*

ALEGAZIOA

2007ko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko zortzigarren xedapen gehigarriak bere hirugarren apartatuan ezartzen du fundazio hauei aplikatuko zaien araubidea, hala aurrekontu arlokoa nola kontabilitate, kontrol, aurrekontu egonkortasun eta finantza jasangarritasunari dagokiena, foru arau honetan merkataritzako foru sozietateentzat ezarritakoa izango dela.

Erregimen hori arautua dago 4/2007 Foru Arauaren hirugarren tituluaren laugarren kapituluan, eta haien ustiapen eta kapital aurrekontua beraien aurrekontua osatzen dute; foru sektore publikoa finkatzeko helburuarekin soilik, kapitulu mailan aurrekontu



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

administratibo bat osatzen dute, 4/2007 Foru Arauaren 43. artikuluan zehaztutako sailkapen ekonomikoaren arabera.

Beraz, ez zaie ezarriko, 2007 martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoan zehaztutako tipologia eta betekizunak. Foru Arau horren aplikazio eremu subjektiboa da Gipuzkoako Foru Aldundiak eta foru organismo autonomoek onartzen dituzten dirulaguntzak.³

³ GLHren 2016rako Aurrekontuei buruzko 8/2015 Foru Arauaren bidez foru sektore publikora foru fundazioak gehitzeak berekin dakar dirulaguntzen foru arauan finkatutako printzipioak aplikatzea.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

BEI	Banco Europeo de Inversiones.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CCFG	Central de Contratación Foral de Gipuzkoa.
CRG	Consortio de Residuos de Gipuzkoa.
CVFP	Consejo Vasco de Finanzas Públicas.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
EL	Entidad local.
EMP	Empresa.
GHK, SA	Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SA.
IGAE	Intervención General de la Administración del Estado.
IPC	Índice de Precios de Consumo.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
ISAL	Familias e instituciones sin ánimo de lucro.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
IZFE	Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA.
NF	Norma Foral.
PIGRUG	Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa.
PIB	Producto Interior Bruto.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
THG	Territorio Histórico de Gipuzkoa.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo para 2019, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa correspondiente al ejercicio 2018.

La Cuenta General del THG debe suministrar información sobre la situación económica, financiera y patrimonial del sector público foral, los resultados económico-patrimoniales del ejercicio y la ejecución y liquidación de los presupuestos y se forma, entre otros, con los siguientes documentos:

- Cuentas anuales e informe de gestión de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Cuentas anuales del resto de entidades integrantes del sector público foral.
- Cuentas consolidadas del sector público foral.

El sector público foral del THG se halla integrado por:

- La Administración Foral, que se identifica con la Diputación Foral.
- La Administración Institucional que se halla integrada por los siguientes organismos autónomos forales:
 - Fundación Uliazpi, cuyo objeto y actividad es la atención a personas con discapacidad intelectual grave y sus familiares.
 - Kabia, cuyo objeto es la gestión, prestación y ejecución de servicios sociales.
- Las sociedades mercantiles forales (participadas todas ellas al 100% por la DFG):
 - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA, que presta servicios informáticos a la administración foral y local.
 - Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, SA, cuyo objeto social es el mantenimiento, conservación, construcción y explotación de los tramos guipuzcoanos de las autopistas A-8 y AP-1 y de sus instalaciones y servicios.
 - Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA, cuyo objeto social es la promoción, ordenación, urbanización, compra y venta de suelo destinado a la ubicación de actividades económicas, viviendas y toda clase de equipamientos públicos. Asimismo, tiene como objeto la adquisición y gestión de suelo susceptible de uso agrario en el THG.
- Las fundaciones forales:
 - Fundación Kiroldgi, cuyo objeto es la promoción y desarrollo del deporte guipuzcoano, con prioritaria atención al deporte de rendimiento, especialmente mediante la captación de patrocinios públicos y privados.
 - Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa, que tiene como objeto dotar al THG de medios permanentes para el adiestramiento y formación en materia de prevención y extinción de incendios, así como otras actividades relacionadas con la extinción del fuego y en general del salvamento en su concepto más amplio, campo en el que pretende ser referente.



- Fundación Adinberri, que tiene por objeto maximizar el potencial de innovación de Gipuzkoa al servicio del envejecimiento saludable, la excelencia del sistema sociosanitario y la competitividad de la industria en este ámbito.
- Fundación del Cambio Climático de Gipuzkoa, cuyas funciones son dar apoyo a la DFG en el análisis, observación y control del impacto del cambio climático en Gipuzkoa y garantizar el proceso de evaluación y seguimiento de los progresos de la estrategia de lucha contra el cambio climático de Gipuzkoa.
- Fundación ZIUR, cuya finalidad es reforzar las capacidades del territorio en materia de fabricación avanzada, en particular en materia de ciberseguridad industrial, impulsando el desarrollo del sector tecnológico y reforzando la competitividad y posicionamiento internacional de las empresas de Gipuzkoa, especialmente las del sector industrial.

Estas tres últimas fundaciones se han constituido en el ejercicio 2018.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas presupuestaria, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, suministros y servicios, concesión de subvenciones y normativa sobre ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si las cuentas de la DFG, de los organismos autónomos, de las sociedades mercantiles y de las fundaciones forales se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- Análisis financiero de la situación económica del Sector Público Foral.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

Los organismos autónomos, las sociedades mercantiles y las fundaciones forales disponen de los correspondientes informes de auditoría externa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD DE LAS ENTIDADES QUE INTEGRAN EL SECTOR PÚBLICO FORAL

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

1. La DFG considera que, según su Plan Estratégico de Recursos Humanos, las primas a la jubilación anticipada y renuncia incentivada a la condición de empleado público abonadas en 2018 a 43 empleados por un importe total de 1,4 millones de euros, son rendimientos del trabajo exentos de IRPF. Dicho Plan no acredita la existencia de las causas que, según el artículo 51 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, permitirían asimilar dichas actuaciones a los despidos colectivos y despidos o ceses por causas objetivas, cuyas indemnizaciones sí están exentas según el artículo 9 de la NF 3/2014, de 17 de enero, del IRPF (ver Anexo B.3).
2. La DFG, tras el vencimiento de cinco contratos, ha continuado contratando la prestación de servicios sociales con un gasto de 5,1 millones de euros al margen de los procedimientos abiertos de adjudicación que hubieran sido exigibles según la normativa de contratación, procedimientos que se han iniciado con posterioridad (ver Anexo B.13.2).
3. La DFG ha contratado con once proveedores el servicio de tratamiento de atención temprana, con un gasto en el ejercicio 2018 de 725.540 euros, sin la tramitación de expediente, debiendo haberse utilizado el procedimiento abierto.
